

## NEKAZARITZAREN GAÑEAN JOLASA.

—Gaur nekazaritzaren gañean jardun bear degu.

—Ez da gaizki igarota izango denbora, zeren ori da gure egintza.

—Lur mueta asko dira, baña guztiak bitara biurtzen dira.

Lur guztiak du buztina eta ondarra: buztin geiago badu ondar baño deitzen zayo buztin lurra; eta ondar geiago badu buztin baño deitzen zayo ondar lurra.

Buztin lurrak ez dio urari barrena sartzen uzten; ondar lurrak berri guztiari sartzen uzten dio.

Lurra ona izateko bear du buztin ainbat ondar; bestela busti bezin laster legortzen da.

Lur onak ura asko artu eta gordetzen du; eta gaña idortzen dijoan bezala dijoa ere ura betik gora.

Au berau gertatzen da mehan igotzen dan olioarekin.

Onelako lur muetak aski dute udaberrian artzen duten euria uda guztirako.

Kareak desegiten du chit ongi buztin lurra.

Gorotza da gero gauza bearra lurrak emateko.

Gorotza izateko bear da elea, eta elea izateko bear da bazka.

Nekazaririk onena da uzta eta bazka lur beretik ateratzen dituen.

Au da gure errietan ikusten dana.

Eleak bear du etzauntza, eta etzauntzarentzat bear da ondagiña.

Ondagiñik ez dan lekuetan ezartzen da ondar legorra; eta ondar legorrik ez bada egiten da bidarria.

Batezere bear du eleak garbitasun andia, naiz jaten guchiago eman dakiola; eta iduki bear da al bait begien aurrean, zergatik ikarakorra da eta ikarak argaltzen du.

Nai du chit atzegitea eta palakatzea.

Eman bear zayo jaten maiz eta bakoitzean guchi; bestela igitzen da eta ez du ongi chigoitzen.

AGUSTIN PASCUAL DE ITURRIAGA.

## NEKAZARITZAREN GAÑEAN JOLASA.



—Azkeneko jolasari jarraitzeaz egidazu atsegin.

—Atsegin andi batekin jarraituko diot, nekatzen ez zaitudala ikusten dedan ezkeroz.

Lurrak ditu bere barrenean asko ezade mota.

Landare bakoitzak nai du berea; baña beti landare mota bat aldatzen bada lur batean, geroago eta chatarragoa etorriko da.

—Ori gauza ikusia da, zergatik geroago ta ezade guchiago geldituko da.

—Argatikan eman bear zayo lurrari lur berria edo gorotza; bestela aldatu bear dira, orain landare mota bat eta gero beste bat.

Badira landareak elkarrekin ongi datozenak, eta badira elkarri kalte egiten diotenak.

Ezade diferenteak bear badituzte, egon ditezke lur berean bi landare mota; baña ezade bera bear badute biak, ez.

Ez du abere batek zatirik gorotza egiteko ona ez danik.

Beatzala, ezurra, adarra, illea, guztia da ona chit gorotza egiteko.

Karea ugari dan tokietan, nekazari onak bear du bota karobi zulara arrapatzen duen guztia.

Kare piska batekin nastuaz, guztia biurtuko da gorotz.

Ara bota bear dira zapata zar, abere ill eta zatarrerria guztia.

Badira tuparriak kare asko daukatenak, eta buztin lurrarentzat chit onak diranak.

Karea daukaten edo ez, ozpiñean zatico bat sartu eta ezagutzen da.

Irakiten edo maskulloak botatzen asten bada, karea duen señalea da.

Autsa da ongarririk onenetatik bat; baña auts asko egiteko eragñi asko bear da.

Lur zelayak dira onak landutzeko; zeren berenez charrak izan arren, nekazari onak ondutzen ditu: bada ematen zayoten guztia bertan gelditzen da.

Lur aldapetan ifiñi bear dira arbolak.

Lur guchi ondo landuak geiago ematen du asko gaizki landuak baño.

Lurrak ongi landua egoteko auts egiña bear du egon.

Ale mot asko erein bear dira urte berean, biltze baten faltan beste arrapa dedin.

Argatik esaten da bat duenak batere ez duela.

AGUSTIN PASCUAL DE ITURRIAGA.

---

## SAINT PALAIS.

---

No hay cuestion más interesante, más importante y más difícil de resolver que la del origen é historia de los nombres de lugares del país basco. El estudio de la toponimia euskara está seguramente llamado á prestar grandes servicios á la lingüística, revelándose muchas formas derivadas y muchas permutaciones fonéticas aun desconocidas.

Uno de los puntos más dignos de atencion será indudablemente la investigacion y restitution de los nombres originales reemplazados por nombres de santos durante la efervescencia religiosa de la Edad Media. Así los documentos históricos nos enseñan que la aldea actual de *Saint-Pee-sur Nivelle* se ha llamado durante mucho tiempo *Saint Pee de Ibarren* (y uno de los barrios actuales todavía conserva este nombre), despues de haber sido conocida con el solo nombre de *Ibarren*. Estas sustituciones de nombres de santos á los nombres toponímicos primitivos, provienen casi siempre de la construccion de una iglesia bajo tal ócual advocacion. A pesar de la forma basca *Sempere*, se sabe que el San Pee en cuestion no es otro que San Pedro; la fiesta